

Alberto Corazon espainiar diseinatzailea zendu da

2021/02/10

15:06

Literatura

Heriotza

Natxo Velez | EITB Media

"Egunero hasten delako" Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberriko portadaren egilea izan zen Corazon.

Alberto Corazon, ONCEren, Espainiako Liburutegi Nazionalaren eta beste hainbat elkarte eta erakunderen logoen egilea, zendu da gaur, 79 urte zituela.

Arte Ederren Errege Akademiako kidea izan zen eta Diseinatzaile Profesionalen Espainiako Elkartearen sortu zuen.

Besteak beste, New Yorkeko Arts Directors Clubek, British Designek eta International Design Council-ek saritu zuten bere lana, eta American Institute of Graphic Artsen urrezko domina jaso duen europar diseinatzaile bakarra da.

“Egunero hasten delako”

Corazonek Lur donostiar argitaletxearentzat lan egin zuen, 60ko eta 70eko hamarkadan, eta **“Egunero hasten delako” [Ramon Saizarbitoriaren](#) lehen eleberraren azalaren egilea** izan zen.

**RAMON
SAIZARBITORIA
EGUNERO
HASTEN
DELAKO**



Erein argialetxeak euskal literaturako lehen eleberrri formalki modernoaren 50. urteurrenaren harira prestatu zuen berrargitalpenaren hitzaurrean Saizarbitoriak kontatzen duenez, Jose de Arteche azpeitiar idazleak errieta egin zion abortuaz diharduen nobela bati halako azala jarri izanagatik.

De Artechek, foru liburutegiaren zuzendaria garai hartan, “Euskal Herriari

belauniko barkamena eskatzeko” esan zion Saizarbitoriari orduko hartan, santa Bernardetteren, 1858an Frantziako Lordan ama birjina ikusi zuela esan zuen neskatxaren, erretratua ikusten baitzuen berak portadako irudian.

Saizarbitoriaren hitzetan, Corazonek berak azaldu zion portadako emakumea ez dela Bernardette, ezpada “familia kontsideratzen zuen Donostiako Castells-Artetxetarretako neska bat”.